



Araotzeko kinttuak Santa Ageda bezperan

Hirurogei urte dako fotografia honek. Araotzen baserri gehixenetan lagun askoko familixak bizi ziran artian, eta gazterixa ugarixa eguen auzuan. Pentsau, 1958xan zortzi mutil gazte araoztar sartu ziran orduko kinttadan, hurrengo urtian soldaduzkara fan biharra eukaillako. Hori dala eta, **Santa Ageda eguneko kanta-eskia auzuan bertan antolaketia erabagi euen.** Soiñujoliaren aitzakixarik be ez eguen, kinttuetak batek ederki joten ebelako akordeoia: Txomeneko Jabier Guridik, hain zuzen be.

Araotzeko baillara zabaliam sakabanatuta dagozen auzunetako baserri guztietan jardun euen kantuan; **Bartolo Azkoitia** ezaguna izan zan bertso-kantari bakarlarixa eta **Jabier Guridi**, *Txome*, soiñujolia; kintto gaztiak, berriz, **koru errepikatzaillaren lanak** egin zittuain. Leku danetan emun ostean zerbait: **arrautzak, txorizua, opillak edo dirua.** Sasue haretan auzuan dozenaka etxe izanik, **janari eta diru pillia eurenganatu euen Santa Ageda batzaillioik;** bazkari bat baiño gehixago moduketako adiña. Kaleko kinttuak, oster, etziran oso gustora geratu: beste soiñujole bat topau bihar izan euen, eta pagautakoa, jakiña. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue argazkixan agerketan diran araoztarrak:

Goixenian, bera bakarrik, **Tomas Altube**, Araozurruti Goittikua.

Lehenengo illaran, goixan: **Felix Beitia**, Madina Beittikua; **Bixente Zubia**, Lopena; **Jabier Erostarbe**, Etxetxokua; **Joxe Antonio Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; eta **Maximo Zumalde**, Madina Garaikua.

Bigarren illaran, erdixan: **Jeronimo Lezeta**, Txurdiñenekua; Auzoko mutillen maixua; **Bartolo Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; **Patxi Zubia**, Gerneta Erdikua; **Joxe Luis Maiztegi**, Errastikua; **Paulo Azkoitia**, Madina Azpiko Txikikua; eta **Felix Arenaza**, Aitzgaiñeko Araoztakua.

Beheko illaran: **Pedro Uriarte**, Erreka Txikikua; **Benito Barrena** danborrarekin, Otalora Haundikua; **Joxe Olalde**, Zumaldekua; **Klaudio Goitia**, auzo-alkatia, Gerneta Handiko etxekua; **Jabier Guridi**, soiñujolia, Txomena; **Maximo Urkia**, Aizkorbe Goittikua; eta **Antonio Urkia**, Ugaztegi Erdiko etxekua.

Gorago esan dogun lez, **argazkixa 1958kua** da; eztakigu nor ataratakua dan, baiña bai nun: Ugaran auzuneko **Erreke Txiki** baserrixaren aurrian.

J. E.

Fotografia eta informaziño gehixena Jabier Guridiren bittartez aillegau xaku. Koldo Zumaldek be argibide batzuk emun dosku. Milla esker bixoiri!

Oharra: fan dan hilleko argazkixan ezkerretik hirugarren agiri dan neska gaztia ezta **Leonor Zulueta**, **Laura Enparantza Zulueta** baiño. Txilen jaixo arren, Oñatin hazi eta bizi izan zan Galartza-Zulueta familixan, 1936ko gerratian Ameriketara bueltau zan arte. Aitta Zañartuko Usako baserrikua eukan eta ama kaletarra. Zuzenketia Iñaki Ormazabal eta Jabier Galartzari zor dostegu. Eskerrik asko!